



BARREN  
TOKIKOM



# Muzak 'Programaturik'





korrika.eus



22.korrika

HITZEKIN

MATERIALA  
HEMEN  
SALGAI:

Amurriotik Donostiara  
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Korrika dendetan,  
AEKren euskaltegietan eta  
www.korrika.eus atarian.



GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

Kontzesionario eta zerbitzu ofizialak

Ibilgailu berriak  
Bigarren eskuko ibilgailuak  
Mantentze-zerbitzu azkarra  
Mekanika  
Karrozeria  
Ibilgailuen alokairua



DACIA



@grupogaursa



www.gaurso.com



674 801 717

ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea

## Hitzen bitartez askatzen naiz, eta zu?

turarik izaten. Pianoa jotzea, marraztea, dantzatzea, kirola egitea... izaten ziren niretzat kanpora begirako adierazpen erremintak. Esango nuke, unibertsitateko lehenengo urte inguruan hasi nintzela barretik ateratzen zitezidana idaztearen bitartez askatzen eta horretarako, sakelako telefonoko notetan idazten hasi nintzen. Segidan, BARRENen idazteko aukera izan nuen, eta momentu hura gogoan dut, bertigo asko eman baitzidan nire pentsamenduetan zegoena publiko egiteak.

Aldi berean, deskubrimendua izan zen idazten hastea, pertsonalki onura asko eman zizkidalako. Beraz, argitaratzea, beldur bezala ikusi beharrean, aukera bezala ikusten hasi nintzen, eta berriro ere nire "konfort egoeratik" irteten. Honekin batera, argitaratu nuena jendeak gustuko zuela ikusteak, nire bizipenak partekatzen jarraitzeko gogoia eman zidan. Batetik,

norberarentzat onuragarria izan daitekeelako eta bestetik, ingurukoek agian zugarrik zerbait baliogarria jaso dezaketelako.

Norberaren ezinegonak askatzeko teknikez ari garela, lagunekin hitz egiten hasi eta askok esan didate idaztea berrirentzat ere barruan dutena askatzeko modua dela, beste batzuei musika entzuteak estresa kanpora ateratzen laguntzen die, badaude sare sozialetan publikazio bat egitea lagungarri egiten zaien batzuk, eta ziur beste batzuei norberarentzat kroketak goxo batzuk prestatzeko asko laguntzen diela. Bakoitza mundu bat da!

Milaka modu daude eta bakoitzak norberari hobekien dagokiona aurkitu behar du. Batzuetan aurkitzea ez da uste bezain erraza izaten, baina probatu eta besteen esperientziak entzun ditzakezu. Esaterako, zure kasuan, zein da askatzeko erabiltzen duzun erreminta?



**G**airen baten inguruan idazteko gogoia dut, baina zer gai? Egia esan, gaurkoan denbora gainera etorri zait eta ez naiz idazteko inspiratu. Askotan izaten dut barruan dudana azaleratzeko nahia; inguruan entzun edo ikusten dudana zerbait irakurleekin partekatze gogoia.

Izan ere, azken aste hauek zorotzekoak ari dira izaten, eta alde batetik bestera nabil, egin behar dudana bidaia baterako prestaketak direla-eta. Ondorioz, ez dut behar adina denbora gorde eta ez naiz nire barruan bueltakari denaz hausnartzen jarri.

Egia esan, lehen ez nuen idazteko ohi-

*"Argitaratu nuena jendeak gustuko zuela ikusteak, nire bizipenak partekatzen jarraitzeko gogoia eman zidan"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizkako ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
URDIA  
AJUNTAMIENTU

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► GURE ZUHAITZAK

Ohitura daukat lasaitasun bila Berasetara joateko, eta batzuetan hango bankuetan esertzen naiz, paisaiak disfrutatzen. Jakina da azken bolada honetan inguruko maldetan koniferoen landaketa berriak egin dituztela, eta horiek ikusterakoan, nahi gabe ere, burutazioak etortzen zaizkit: ez dugu ikasi. Pinuen banda marroiaren gaixotasunaren ondorioz, ingurumenaren krisialdi sakona jasaten ari gara, eta hala ere, jarraitzen dugu eukalipto eta konifero gehiago landatzen.

Joan zen astean Berasetako azkeneko bihurtunera ailegatzeko argitasun handia sumatu nuen; ezin nuen sinetsi zelako txikizioa egin zuten. Amorruta, haserrea eta samina sentitu nituen dozena eta erdi zuhaitz moztuta ikusi nituenean, lurrean botata. Ederrak ziren, 50 urtetik gorakoak. Garai honetan ez daukate historik eta ez dakit seguru zer ziren baina iruditu zitzaizkidan astigarrak, haritz amerikarrak, lizarrak, pagoren bat... izan zitezkeela. Jaisterakoan lagun irakasle bat ikusi nuen, bere ikasleekin aire libreko klase batean eta esan zidan aurten eskolan Agenda 21ean gai nagusizat basoak aukeratu dituztela! Eguneroko kontraesanak!

Bestalde, badakit lursail pribatua dela eta jabeak pentsatuko duela nahi duena egin dezakeela, baina nire ustez, sentsibilitate eza ikaragarria erakutsi du, eta baita, zuhaitzak botatzeko baimena eman duenak ere. Ez dakit zein izan dai-

tekeen konponbidea zuhaitzak salbatzeko, baina aldaketa klimatikoaren kontra borrokatzeko xehetasun txiki hauek asko balio dute.

K.A.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelazko datoren eskutitzik argitaratuko.



## Jose Luis Collantes Moreno

2022ko martxoaren 15ean hil zen, 78 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.







**Tirolina azpia lokatzez beteta egoten da:** "Tirolina azpiko lurra lokatzez beteta egoten da beti, eta umeak pila bat zikintzen dira. Oinetakoak zikintzea gauza bat da, baina umeren bat lurrera erortzen bada, goitik behera zikintzen da. Iruditzen zait badaudela beste irtenbide batzuk, esaterako, soka eta beste jolasen parkean aldean dagoen gomazko lurra jartzea".



**Kultur Etxe atzeko egurrezko zubia arriskutsu dago:** "Kultur Etxe atzeko zubia zaharkituta eta egoera txarrean dago. Iltzeak bistan daude, eta erabiltzaileek min hartzeko arriskua dago. Zubia konpontzeko beharra dago".



**San Pedroko zubiak mantenu falta dauka:** "San Pedro auzoko zubia zahartuta dago, eta mantenu falta dauka. Lurra ez dago egoera onean, eta bustitzen denean oso arriskutsu jartzen da. Horrez gain, zubiko pintura ere harrotuta dago, eta margotzeko beharra dauka".

**Aste Santuko Kirol Kanpusean zergatik ez daude bi txanda aukeran?:** "Aurten, Aste Santuko Kirol Kanpusean Aizena eman nahi genuen, baina soilik Aste Santu aurreko egunetan, Pazko Astea jai daukagulako eta kanpora joango garelako. Informazio eske deitu nuen kiroldegira, eta esan zidaten ez zegoela txandarik. Aukera zegoela aste batez bakarrik joateko, baina osorik ordaindu behar zirela bi asteak. Herrian badago aisialdi eskaintza gehiago, eta han beti egoten dira txandak aukeran. Zergatik Kirol Kanpusean ez, jakinda jende askok gaur egun lehen astea edo bigarrena jai izaten dugula?". Kirol Patronatuko arduradunarekin jarri gara harremanetan, eta ondorengo erantzun du: "Udal Kirol Patronatuak aztertu du aurrez Kirol Kanpus ezberdinen eskaintza-egunen zatikatzea, baina logistikoki zein eskaintzari dagokionez, arazoak eragiten ditu. Aste Santuaren kasuan are gehiago, txanda ezberdinak oso txikiak baitira denboran. Horrek parte-hartzaileen jardunean gorabeherak sortzen ditu. Gure Kirol Kanpusak dituen helburuak zaintza zerbitzu batetik harago doaz, eta horretan zeresan handia dute hezitzaileek: hiru edo lau eguneko lan-jarduna eskaintzea ez da duina, eta hezitzaileei eskaintzen dizkiegun lan-baldintzek, neurri handi batean, eragina dute gure kanpus ezberdinen kalitatean. Arrazoi hauengatik ere ez dugu bi txandatan banatzen Udako Kirol Kanpusa".

## 24/7 plataformak komunikabideetan eztabaidatzeari lagatzeko eskatu die alderdi politikoei, anbulatorioko gaiaren harira

Elgoibarko anbulatorioaren egoerari buruz hedabideetan eztabaidan aritu dira herriko alderdi politikoak. Horren harira 24/7 Plataformak alderdiei eskatu die "proposamen zehatzak aurkezteko eta komunikabideetan eztabaida antzuak alde batera uzteko". Era berean, "herritarren premiei eta adierazi dituzten aldarrikapenei lehentasuna emateko" eskatu dute. Horiek lortzeko bidean lagungarriak izan daitezkeen proposamenak eta ekimenak mahai gainean jartzeko deia ere egin die. Izan ere, "gure udalerrian kalitatezko osasun zerbitzu publiko bat berreskuratzea da plataformaren xede eta helburu bakarra".

Plataformak gaineratu du "etengabe lanean jarraituko duela Elgoibarko 5.501 bizilagunek beren sinaduren bidez adierazitako aldarrikapenak errespetatu eta inplementatu daitezzen. Jakinarazi dute datorren eguaztenean erregistratuko dituztela sinadurak Eusko Legebiltzarrean, eta segidan, agerraldia egingo dute Legebiltzarreko prentsa aretoan, elgoibartarren eskaerak azaltzeko. Era berean, Osasun Batzordeari egindako eskaera ere erregistratuko dute.

### Mendaroko Udalak izurriteen aurkako neurriak indartu ditu

Mendaroko Udalak azken uholdeen ondorioz sortutako izurriteen harira lanean jardun du azken asteotan. Herria garbi mantentzea eta mendaroarren osasuna zaintzea da Udalaren lehentasuna. Horretarako, herriko arratoi eta saguen intzidentziak eta izurriteen ugartize-guneak aztertu zituen, eragina ikusteko eta gune kritikoen mapan irudikatuzko: herriko sarbideak, euri eta gorotz-saneamendurako hodiak, kable-hodiak eta eremu kritikoak, hala nola, ezpondak, lorategiak, sasi-eremuak eta zaborteak. Ondorioak aterata hartu dituzte neurriak. Mendaron urtean hamabi ikuskapen eta tratamendu egiten dituzte arratoi, sagu, labezomorro eta inurrien aurka, denbora-tarte erregularretan. Arratoiak hiltzeko edo kontrolatzeko monitorizazio-blokeak ipintzen dituzte edo karraskariak egoten diren eremuetan pozoia; eta labezomorro eta inurrien kasuan, berriz, gel intsektizidak. Tratamenduak izurrietan aditua den Acticimex enpresarekin lankidetzan egiten dituzte.

### 'Landa emakumeak eta bizikidetza' sormen lehiaketan saritu dute Ane Munin



Martxoaren 10ean banatu zituzten Ordizian *Landa emakumeak eta bizikidetza* sormen lehiaketako sariak eta Ane Munin Ansola elgoibartarrak jaso zuen lehen saria, 25 urtetik beherakoen mailan. Landaola federazioa osatzen duten Gipuzkoako Landa Garapenerako Elkartek -tartean Debemen- *Landa emakumeak gara* proiektua sustatzen ari dira landa eremuko emakumeen arteko elkar-ezagutza eta saretzea bultzatzeko eta horren baitan egin dute lehiaketa. Honen bidez, Gipuzkoako emakumeak landa eremuaren, bertako emakumeen eta bizikidetzaren inguruan hausnartzera bultzatu nahi izan dituzte. LizagaSar Sagartokixan diharduen Ane Muninek esan du landa eremuak naturaz gozatu eta norbere burua hazteko aukera eskaintzen diola, eta gaineratu du landa giroko grin hori partekatzeko saireak sortu eta mantentzeak zirrara, poza eta itxaropena sentiarazten dizkiola.

### 'Covid-19a eta sen ona' hitzaldia, bihar, Maalako parkean

Iratzargailua taldeak antolatuta, Covid-19aren beste ikuspegi bat lantzeko hitzaldia izango da bihar: *Covid-19a eta sen ona* izango da hitzaldiaren izenburua, eta bereziki umeen txertaketari buruz jardungo dute. Horrez gain, maskararen erabilerak umeengan duen eraginaz ere hitz egingo dute. Jon Ander Etxebarria Euskadiko Biologia Kolegioko dekanoa ohia eta Joseba Argintxona psikologia eta filosofia irakaslea izango dira hizlariak. Maalako parkean izango da saioa, bihar, 12:00etatik aurrera. Hitzaldiaren ostean, galderak egiteko aukera zabalduko dute.

## Heriotzari buruzko zazpi hitzaldi eskainiko dituzte Elgoibarren, eta datorren egunean izango da lehenengoa

Bihotzetik elkarteak sustatuta, heriotzari buruzko jardunaldiak eskainiko dituzte Gipuzkoako sei herritan martxotik ekainera bitartean. Irun, Donostia, Orio, Zarautz, Tolosa eta Elgoibarren izango dira saioak. Guztira, 42 saio eskainiko dituzte, eta horietako zazpi, Elgoibarren izango dira. Lehenengoa datorren martxoaren 24an egingo dute, 18:30etik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Almaur elkarteak lñaki Arregik *Dolutik bizitzara* hitzaldia eskainiko du, eta hori izango da heriotza kontzienteari buruzko sensibilizazio kanpainaren hasiera ofiziala. Gipuzkoako Foru Aldundiko ekonomia departamentuak eta Adinberrik finantzaturako jarduerak izango dira, eta Bihotzetik elkarteak koordinatuko ditu, herrietako Bidasoa zurekin, Bidegin, Zainbizi, Zarautz herri zaintzalea eta Almaur elkarteekin batera.



### Eskaintza zabala

Jardunaldien artean heriotzaren inguruko beste hainbat jarduera antolatuko dituzte, gai hauek lantzeko:

- Heriotza duina: lñaki Peña Debagoieneko ospitaleko zainketa aringarrietako medikuak eskainiko du. (Apirilak 7)
- Zine foruma: Maiatzaren 12an egingo dute Elgoibarren. *La cabaña* filma ikusi eta Amaia Gozategirekin egingo dute solasaldia.
- Aurretiazko borondateen dokumentua: Bihotzetik elkarteak Javier Aramendiak eskainiko du, eta azalduko ditu aurretiazko borondateen dokumentua osatuta edukitzeak dituen onurak. (Apirilak 25)
- Zainketa aringarriak etxean: Montse Perez Bidasoa ospitaleko doktoreak egingo du gai honi buruzko hausnarketa. (Maiatzak 5)
- Doluaren prozesu naturala: Izaskun Andonegi, Donostiako Bidegin elkarteak adituak pertsonen sufrimendua arintzeko egindako lanaren berri emango du. (Ekainak 6)
- Bizitzen ikasiz, hiltzen ikasi: Dibulgazio saioa emango du Belen Capapek. (Ekainak 24)

## Azpiegituren, irisgarritasunaren eta gizarte zerbitzuen inguruko kezkak azaldu dituzte elgoibartarrek 'Etorkizuna Eraikiz' egitasmoko proposamenetan

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Maite Peña Gizarte Politikako foru diputatuak Elgoibarko alkate Ane Beitiarekin bilera izan zuen eguaztenean *Etorkizuna Eraikiz* egitasmoaren baitan jasotako 82 herritarren ekarpenak aztertzeko eta tokiko ekimen nagusiak ezagutzeko. "Ekarpenen lanketa egin ondoren Udalaren eskutan jarri dugu Elgoibarren argazki bat, herritarren kezkak zein diren azalduko dituen, beti ere testuingurua etorkizuna izanik". Udalean funtsezkoak diren proiektuak eza-gutzerara ere etorri dira eta erakundeen arteko lankidetzeta eta harreman ildoak estutzen jarraituko dutela



esan zuten, baita erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzatik politika publiko berriak garatzeko bideak ere. Ane Beitiak nabarmendu zuen *Etorkizuna Eraikiz* partaidetzeta prozesuaren arabera, herritarren proposamenak azpiegituren, mugikortasunaren, irisgarritasunaren eta gizarte zerbitzuen arlokoak izan direla batez ere. Udalak aurrez entzumen aktiboan jardundakoa dela adierazi zuen eta jadanik hainbat lan eginak zituela arlo horietan: igerileku berriak, irisgarritasuna eta mugikortasuna bultzatzeko igogailu berriak eta Udalbusaren babeseta eta Gizarte zerbitzuen arloan mapa osatzeko apustua.

Arlo nagusi horiez gain beste hainbat gairekin lotutako eskaera edo proposamenak ere egin dituzte herritarrek: ingurumena, gazteria, genero-berdintasuna eta euskara. Elgoibarko ekarpenak azaldu ostean esan zuten "guztion ekarpena eta konpromisoa ezinbestekoak" direla etorkizuna eraikitzeko.



## Kamioi baten arrastoak daude Deba ibaian 1988ko uholdeetatik

Eguzki talde ekologistak salatu du, duela 34 urte, 1988ko ufaletan, Elgoibar parean, Deba ibaira erori zen kamioi bat ateratzeko inork ez duela saiakerarik egin eta arrastoak oraindik ibaian daudela.

Ibaitarte industrialde inguruko ibai zatian daude kamioi arrastoak eta Eguzkitik zera esan dute: "Udalek legez bete beharrekoa da hiri-hondakin solidoak ubideetatik eta ibai ertzetatik kentzea, ondoren hondakin horiek kudea daitezen". Sinestezina iruditzen zaie hainbeste urteren ostean, "tamaina horretako hondakin bat ibaitik ez atera eta orain arte kudeatu ez izana".

Neurriak hartzeko dei egin die Eguzkik Deba ibaiaren kudeaketaren erantzukizuna duten erakundeei. "Begi-bistakoa da ez dutela behar besteko azterketa lanik egiten ibai eta ertzetako egoeraren berri izateko. Gainera duela gutxi argitaratu diren dirulaguntzekin, ez dago aitzakiarik ibaiaren garbiketei uko egiteko. Horregatik guztiagatik, Elgoibarko Udalari eskatzen diogu ahalik eta lasterren ken ditzala kamioi horren hondakinak, ondoren birziklatzeko".

Gainerako administrazio eskudunekin lankidetzan, herriko ibai-sistemak zaindu eta kontserbatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzeko ere eskatu diote Eguzki taldekoek Udalari.



## Jubilatuei arlo digitalean laguntza emateko proiektua jarri dute martxan

MEKA LHik, ikasle eta irakasleen bidez, proiektu bat egingo du herriko erretiratuei arlo digitalean laguntza praktikoa eskaintzeko. Gertutasunetik nahi dute erretiratuek konfiantza lortzea, gailu digitalak, smartphone-ak, tabletak... erabiltzeko. Proiektuaren inguruko informazioa hizketaldi saio batean emango dute martxoaren 28an, 17:00etan, Jubilatuen Biltokian.

## Lau bezero saritu zituen Txankakuak Elgoibar Stock Kale Azokan



Txankakua Merkatarik Elkartek antolatuta Stock Kale Azoka egin zuten hilaren hasieran herriko kaleetan. Denden aurrean ipini zituzten ikusgai eta salgai merkatutako produktuak herriko jendea erosketak egitera gerturatzeko. Erosketak egin zituztenek Txankakuaren zozketan hartu zuten parte eta 100 euroko sari bana irabazi zituzten bezeroek: Ainara Uranga, Amaia Mendikute, Ana Jorge eta Agurtzane Bikuña.

## Hiru panel more ipini dituzte indarkeria matxista eta LGTBfobiaren aurka



Elgoibarko hiru sarreratan panelak ipini ditu Udalak kontzientziazio soziala eta herritarra sustatzeko, eta indarkeria matxista mota guztiekin amaitzeko, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta LGTBfobikoarekin. Udaletik jakinarazi dutenez kartel more hauek jarri dituzte beharrezkoa delako hezkuntza eta informazio lana egitea, "indarkeria desagerrarazten saiatzeko eta gizartean berdintasunezko eredu bat ezartzeko".





# Snowboard eta eskiekin familia eta lagun artean elkarrekin

**Makina bat jende joaten da eskiatzera edo snowboardean ibiltzera Elgoibartik. Txikitatik hasi eta gaur oraindik jarraitzen dutenak, beranduago hasiak eta bi urte zituztela hasi eta lehian sartu berri direnak ere badaude. Ibon Baskaran Beristain (2012) da horietako bat, lehian hasi orduko podiumera igo den elgoibartarra. Bere gurasoak eta arreba Nahia (2008) beti izaten ditu gertu eta neba-arrebek elurretan bizitakoak euren jaitsieren pare kontatu dituzte arin eta zehatz.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

**E**lur urte, urte aberats dio esaerak eta elurrak aberastu du umetatik Nahia eta Ibon Baskaran Beristainen aisialdia. Gurasoak mendi eta elur zaleak izanik, hauen pistari segika eskiatzen eta snowboardean ibiltzen dira. Luz Ardideneko pistetako eta han inguruko pistetatik kanpoko elurrak gozarazten dute beraien zaletasuna. Zaletasunetik lehiana ere pasatu da Ibon, baina beti ere lagun eta familia arteko giroa eta gozamenena da beretzat garaipenik handiena.

Gurasoak lagunekin joaten ziren apartamentu zein karabanaekin Luz Ardidenera eta orain umeekin joaten dira, autokarabanan. Beste eski estazio batzuetan ere ibili izan dira, baina beren elurretako etxea Luz Ardiden dela argi dute Nahiak, Ibonnek eta gurasoek. "Han daukagu autokarabana eta asteburuetan autoz joaten gara bertara. Jadanik ohituta gaude, gure bigarren etxea da. Udan eta neguan, batez ere, beti ibiltzen gara mendi inguruneetan", esan du Nahiak.

Hala joaten dira orain, baina familian ibili izan dira txiki-txikitatik elurretan, eskiatzen ez bazuten ere, hasieran jolasean. Gurasoak erraketekin mendian ibiltzera edo eskiekin trabesiak

egitera joaten zirenean aldean eramaten zituzten umeak. Baina biak bi urte zituztela -oraindik txupetea ahoan zutela-, eskiatzen hasi ziren eta ez probarako plastikozko eskiekin, beraiek "benetako" eskiekin ibili nahi zutela esan du amak.

Nahia orain dela hiru urte sartu zen Ski Toy Club Luz Ardiden taldean; Ibon, berriz, taldean entrenatzen hasi zela bi urte dira, baina lehian hasi berria da. Hiru lasterketa jokatu ditu, eta laulau probatan izan da irabazle. Eski talde eta lehiaketetan jarduteko oinarria behar da, ordea, eta neba-arrebek badute. Lehenengo biak eskiekin hasi ziren, baina gaur egun snowboardean ibiltzen da Ibon. "Lau urte nituela, denda batera joan, taula bat ikusi eta amari esan nion hura nahi nuela. Adina zela-eta ez zen kome-nigarria, baina probatu nuen eta hasieran gaizki moldatu arren orain eskiak baino snowboarda nahiago dut", dio Ibonnek.

Nahiak, berriz, snowboardean ibili izan den arren, sekula ez zaio eskia beste gustatu, "orain etxeko gainontzekoak snow-warekin eta eskiekin ere ibiltzen dira, baina ni eskiekin". Taldean sartu zenetik bilakaera handia sumatu du eskiatzen. "Lehen urtero hartzen nuen irakasle bat eta horrek lagundu izan dit, baina

azken hiru urte hauetan pertsona bat izan dut alboan zer egin behar dudan esan didana, aholkuak emanez eta astero gauza berriak erakusten. Horrela gehiago ikasten dut”.

Eski denboraldian asteburuero joaten dira Luz Ardideneko estaziora eta taldean aritzen dira.

### SLALOM ETA 'FREE RIDE'

Bank slalom eta grand slalom modalitateak dira Ibonenak eta hasieran salto pila bat egin eta biraketei garrantziarik ematen ez bazien ere, orain biraketekin gozaten du. “Slalomean aldapan behera biraketak ahalik eta ondoen egitea komeni da zirkuitua gainditzeko, beraz, horiek lantzen ditugu entrenamenduetan. Baina oreka, besoen mugimendu egokia, ausardia eta ondo babestuta joatea ere beharrezkoa da, jausiz gero min hartu daiteke-eta”. Lehiakideei ezezik lagunei ere begiratzen die besoak mugitzeko trukoak ikasteko eta hainbat monitorea ere ezagutzen dituzte umeak, eta haiek ere ematen dizkiete aholkuak, Iboni ezezik baita Nahia ere.

Nahiak *free ride* modalitatean jarduten du eta slalomaren pareko jaitsierak egiten dituen arren, pistetatik kanpo aritzen da markatu gabeko guneeetan, beraz, teknika ikastea ezinbestekoa da eta babesa beharrezko dute hauek ere. Eskiez gain, seinaleak igortzeko aparailua, sonda eta pala eramaten dituzte. “Eskiatzeko teknikez gain, ikasten dugu elurjauzi bat gertatuz gero zer egin beharko genukeen. Gure taldea ez da lehiara joaten, gainera, nik ez dut nahi lehiari ibiltzea”. Lagun talde baten parekoa da beren ekipoa eta gustuko dute belauetatik gorako elurretan ibiltzea, arroketatik salto egitea... Baina elurrak laga ezean edo baldintzak egokiak ez direnean pistetara bideratzen dituzte giroak edo saltoak egiten trebatzera. Izan ere, gero arroka batetik salto egin nahi badute prestatuta egon behar dira. Pistetatik kanpo ibiltzeko teknika gehiago behar da, elurra zapaldu gabe dago eta horrek zailtasun gehiago ditu.

Nahiak lehia ez eta Ibonek bai, bata bank eta grand slalometan eta bestea *free ride*-n, baina biak ibiltzen dira snow parkean saltoak egiten ere eta jolas moduan hartzen dituzte saltoak, seme-alabak hala ikusteak ama batzutan ikaritzen badu ere. Nahia, esaterako, elurra gogorregi dagoenean joaten da eta eskiekin, beharbada, saltoak arriskutsuagoak badira ere, ondo moldatzen da. “Batzutan nondik salto egin behar dudan ikusita



### *Ibon eta Nahia biak ibiltzen dira snow parkean saltoak egiten eta jolas moduan hartzen dituzte salto horiek*

errespetu piska bat ematen dit, baina moldatzen naiz. Badira saltoetan airean ateratzen garen momentuak eta horrek zirrara sortzen du”. Snow parkean ezezik Ibon pistetatik kanpo ere ibiltzen da.

### FAMILIA ETA LAGUNAK

Ez da erraza, baina apenas izaten dute beldurrik Ibonek eta Nahiak umetatik elurretan asko ibili baitira. Gurasoengandik jaso zuten zaletasuna eta gaur egun ere beraiekin aritzen dira eskiatzen. “Niri gehien erakutsi didana aita izan da”, esan du Ibonek.

Taldekoekin eskiatzen eta snowboardean aritu arren lagunekin zein familian gauza bereziak ere egin izan dituzte. Esaterako, ilargi betearekin eskiatu izan dute noizbait. “Bernazorako ibilbidea egin izan dugu. Beste bailara batera pasatzen gara eta oso polita da etxetxoan eta zuhaitzen artean pasatuz eskiatzea. Baina bidea ondo jakin behar da eta beti taldean jaisten



gara. Luz Ardideneko azken teleaulkia zabalik badago guretzat hobe, bestela eskiak gainean eraman behar izaten ditugu gero beste bailarara jaisteko". Pistaz kanpo jaisten dira handik eta eskiakin zein snowboardarekin ibili daitezkeen arren, taula zabalagoarekin nahiago du Ibonek.

Nola ez familian egin horrelako jaitsierak, hori baitute gustuko, etxeok ezezik lagun giroan ere ibiltzea. "Guk 20 lagunetik gorako talde bat osatu dugu Luz Ardiden, astebururo-astebururo elkartzan garen koadrila, familia handi baten parekoa da guretzat".

Lagun artean eta familian, neguan zein gainontzeko urtarotan. Nola aritu, ordea, elurrik gabe eski edo snow taulen gainean? Bada, Nahia elurretan ez bada, orain Jowarekin (surf skate) patinete berezi batekin ibiltzen da. "Ez dakit horregatik den-edo snow boardean berriz ibiltzeko gogo sartu zait. Horrekin biraketak lantzen dira, teknika bera da. Jowarekin ibiltzeko, baina, ez da edozein lur egokia, laua izan behar du, Elgoibarren, esaterako, Kalegoen plaza oso ona da". Hala ere azpimarratu du eskia nahiago duela. "Snowboarda lurrean jartzekoa da eta gehiago jausten da".

Ibonek ere egiten ditu entrenamenduak, Eibarrera joaten baita Ipar eskolara skatearekin. Barruko skate pistetan besteak beste saltoak egiten ibiltzen da.

Txikitari hasi, eta hazi ahala eskietan eta snowboardean gora. Ibon eta Nahia elurretan gozatuz arituko dira ahal eta nahi duten bitartean. Gora bai eta behera ere bai elur aldapetan ondo pasatuz.



## LEHIAKETETAN IRABAZLE

Lehia ez da Ibon Baskaranen helburu, baina elur ona zegoen egun batean, snowboard egiten ikusita, Ski Toy Club Luz Ardiden taldekoek beraiekin hasteko proposamena egin zioten eta Ibonek baiezkoa eman zuen. Pandemiak, baina, lehiarako bidea eten zuen. Hala ere, denboraldi berria snowboardean eta lehiaketetan aritzeko gogo handiarekin hasi du eta lehen hiru lehiaketak irabazi ditu, probak lau izan baidira ere. Lasterketak La Mongien eta Saint Laryn (Frantziako txapelketa) izan dira.

Grand slaloma eta bank slaloma egiten dute, tanda bat baino gehiagotan aldapa jaitsiz eta bakoitzeko denbora neurtzen diete. "Lehen lehiaketan hiru jaitsieretan denbora bera egin nuen, baina azken bietan jausi egin nintzen, beraz, lau segunduko zigorra izan nuen, baina hala ere, irabazi egin nuen. Gainera, pista oso gaizki zegoen eta ia denak jausi ginen bi edo hiru aldiz", kontatu du Ibonek. Bere ustez lehiarako pista perfektua "ondo zapalduta egon behar da, elur hautsarekin eta zulo zein koskarik gabe".

Frantziako koparako puntuagarria izan zen beste proba

Ibonentzat eta bere mailan (7 eta 11 urte artekoa) lehenengo izateaz gain, hurrengo mailakoak (12 eta 15 urte artekoak) ere gaintu zituen. Lehiaketan askotariko adinetako partaideak izan ziren (mailatan banatuta, baina nagusienak 50 urtekoak) eta lehiaketako 53 partaideen artean 17. postuan sailkatu zen Ibon.

Proben aurretik ez dute ibilbidea ezagutzen, baina lehenengo jaitsiera probakoa izaten da eta "lehen biraketa egin edo lehenengo kurba pasatutakoan hurrengoari begirutzen diot. Lehen jaitsiera horretan ibilbidea bistaritzen saiatzen naiz, gero ahalik eta ondoen jaisteko".

Lehiaketetan hasi baino ez da egin. Aurrean aritu zen lehen lehiaketetan, baina taula gainean lesioa izan zuen gero (klabikula hautsi du). Beraz, datorren denboraldira itxaron beharko du lehiaketetan berriz hasteko.

Hala ere, lehiakideen adinak edo lehiakortasunak ez du kezkatzen Ibon, "ondo pasatzea da nire helburua". Beraz aurrerantzean ere aldapetan behera arituko da, elurraz gozatzen.

## ► RUBEN IRIGOYEN

MUZAK TALDEKO  
BATERIA JOTZAILEA

Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) da taldeko bateria jotzailea. 2021ean sortu zuten taldea. *Programaturik* izeneko diskoa kaleratu zuten iazko urrian, eta *Gaztea Maketa* Lehiaketako finalisten artean egon ziren. Orain bideoklipa grabatu dute, eta kontzertuak eskaintzen ari dira. Bihar, esaterako, Mendaron joko dute *Motxaila Egunean*, eta gaur zortzi, Elgoibarren arituko dira, Kultur Etxeko Sotoan. Rock progresibo doinuak egiten dituzte, euskaraz.

- AINHOA ANDONEGI -



## “Bi baketa besapean nituela jaio nintzen”

### ◆ Noiz eta nola sortu zenuten Muzak taldea?

Aspalditik ezagutzen nuen Joanes Iñurrieta, eta betidanik izan dugu elkarrekin talde bat sortzeko nahia, baina konpromisoak konpromiso ezinezkoa egiten zitzaigun horretarako denbora ateratzea. Dela ikasketengatik edo beste talde batzuetan aritzen ginelako, ez genuen guretzako tarterik hartzen. Nire kasuan, Jon Gurrutxagarekin Jon & Sugramas taldean, Aiumeen Basoan... nenbilen baina beti izaten du musikoak berea edo bere sentitzen duen taldea sortzeko gogoia, eta Joanes eta nire kasuan ere, arantza hori beti izan dugu. Hortaz, adin berekoak izan arren, eta musika estiloan ere bat egin arren, bataren eta bestearen konpromisoengatik gure arteko proiektuari ez genion formarik ematen, eta beti atzeratzen genuen. Halako baten erabaki genuen gure proiektua sortzea, eta justu orduan iritsi zitzaigun koronabirusaren pandemia. Beraz, esan daiteke Muzak taldea 2021ean sortua dela. Joanesek gitarra jotzen du, eta bera da taldeko abeslaria ere. Nik bateria jo eta koroak egiten ditut, eta Aitor Sagarmendi mutrikuarra da baxu jotzailea. Oso zaila egin zaigu baxu jo-

tzailea aurkitzea, baina beste talde batetik ezagutzen nuen *Sagar* eta berarekin jarri nintzen harremanetan. Orduan ikasten ari zen, eta ikasketak eta musika uztartzea ez da erraza, baina ikasketak amaitu zituztenean baiezkoa eman zigun.

### ◆ Muzak izena jarri diozue taldeari. Zer esan nahi du?

Muzak marka erregistratua da. Estatu Batuetatik dator kontzeptua, eta igogailuetako musikarekin lotzen da. Han erai-kin oso altuak daude, eta 80. pisura igotzeko, adibidez, denbora dexente pasa behar izaten zuten, munduak ikusten zituen lehen igogailu haietan. Denbora hori eramangarriago izateko musikarekin lotzen da Muzak, eta zerbait lortzeko helburuarekin sortutako musika dela ere esan daiteke. Adibide argiena, denda batera sartu eta han jartzen duten musika izan daiteke, musikaren erritmora jendeak gusturago erosi eta hurrengoan berriz bueltatzeko helburua izaten du. Gustatu egin zitzaigun hitz

hori, soinu aldetik atsegina iruditu zitzaigun.

### ◆ Zein estilotako musika egiten duzue?

Musika estilo asko eta desberdinak gustatzen zaizkigu. Joanesi, esaterako, rock alternatiboa gustatzen zaio, *Sagar* metaleroagoa da, eta niri biak gustatzen zaizkit. 11 urte nituela Iron Maiden eta Metallica deskubritu nituen, eta sekulakoa izan zen niretzat. Orain gehiago entzuten dut euskal musika. Bratislavan Erasmus programarekin egon nintzenean euskal musikaren falta sumatzen nuen. Berri Txarrak entzuten nuen etengabe han, eta handik itzuli nintzenetik, euskal taldeak jarraitzen ditut, bereziki. Kontzertuetara joatea asko gustatzen zait, oholtza gainean eta behean, berdin gozatzen dut. Goian egotea sekulakoa da, baina behean, musika ona entzutea, ere izugarri gustatzen zait.

### ◆ Taldea sortu eta gutxira *Gaztea Maketa* Lehiaketan hartu zenuten parte.

Bai, parean tokatu zitzaigun. Kanta batzuk prest geneuzkan taldea sortzerako,





*Ruben Irigoyen,  
Joanes Iñurrieta eta  
Aitor Sagarmendi.  
Arg.: Juan Fernandez Conde*

eta probatzea erabaki genuen. Ez geneukan ezer galtzeko! Esperientzia moduan politena izango litzateke finalean jotzea eta hori ez geneuen lortu, baina mundu horretan zer dagoen ikasteko balio izan digu esperientzia honek.

#### ♦ **Lehenengo diskoa euskara hutsean egin duzue. Euskaraz abesteko hautua kontzienteki hartutakoa izan da?**

Bai, gero eta argiago daukagu Euskal Herria izango dela gure eremua, eta ez zaigu burutik pasatzen euskara ez den beste hizkuntza batean abestea. Euskaraz bizi gara, euskal musika entzuten dugu eta euskararen presentzia behar dugu kantetan.

#### ♦ **Zeri abesten diozue?**

*Programaturik* izena dauka gure lehen diskoak, eta abesti bat kenduta, beste denak horri buruzkoak dira. Nolabait esan nahi dugu gizakiok bide bat aurrerakusia daukagula, eta oso gutxi iriteta garelako bide horretatik. Horretarako heziak baino, programatuak gaudela esango nuke. Egia esan behar badut, letrak idaztea kostatzen zaigu gehien. Gu musikariak gara, eta lehenengo musika egiten dugu. Gai guztiak erabilita daude gainera, eta originalak izatea oso zaila da. Baina bueno, guk gure estiloan abestuko

dugu, gure ukitua emanez.

#### ♦ **Nondik datorkizu perkusiorako zale-tasuna?**

Ume batzuk ogia besapean dutela jaiotzen diren bezala, ni bi baketa besapean nituela jaiotzen nintzen. Ogirik ere ez zaigu falta izan zorionez. Aitak grabatutako txikitako bideoetan ikusten dudanez, ume umetatik aritu izan naiz danborra jotzen. Kontzientziarik ez nuenean ere, galleta kaxa bat hartu eta danborra balitz bezala jotzen nuen. Metalezko galleta kaxa urdin bat zen onena! Hura ez zen sekula apurtzen! Musika Eskolan hasi nintzen gero perkusioa ikasten Gorka Mujikarekin. 15 urterekin txaranga eta musika bandan sartu nintzen. Duela hiru urte laga nuen txaranga, eta musika bandarekin igande honetan joko dut azkenekoz. Ez daukat denerako denborarik, eta momentuz, lagatzea erabaki dut. Ez nituzke ateak itxi nahi, eta aurrerago bueltatzea begi onez ikusiko nuke agian, baina momentuz, hemen bukatuko da bandako nire ibilbidea.

#### ♦ **Kultura, oro har, egoera prekarioan dagoela salatuta dute kulturgileek. Zuk nola ikusten duzu?**

Bai, horrela da, kulturak behar du babes ekonomiko handiagoa. Jendearen

babesa badago, baina lekua topatzean dago gakoa. Batzuen eta besteen eraginak zeresan handia dauka musika munduan ere, eta ez da lan erraza kontaktu sare hori eraikitzea, ahal den belarri gehienetara iristeko. Gure kasuan, hiru taldekideok gure lana daukagu eta Muzak hobby bat da. Ez da ondo ordaintzen, eta orain, gainera, joan-etorriak gero eta garestiagoak izango direla dirudi, gasolinaren prezioaren gorakadaren ondorioz. Emanaldi batzuetan dirua galdu ere egin daiteke! Musikatik bizitzeko beste guztia laga eta musikari bakarrik eskaini behar zaio denbora, eta hori egiteko ausardia, lanerako gogoia eta proiektu edo ideia bat behar dira.

#### ♦ **Elgoibarren biltzen zarete, astean behin. Nolakoa da une honetan herriko musika taldeen egoera?**

Bai, Pedro Muguruza eskolako lokal batean biltzen gara. Oso ondo dago. Herriko musikariek urteetan eskatu izan dituzte lokalak, eta herri bateko kultura musikala sustatzeko ezinbestekoa da lokalak eskaintzea, bereziki batera jotzailea izanez gero. Badabilta gazteak musikan, eta nik uste dut gero eta gehiago animatuko direla.

#### ♦ **Bihar Mendaron joko duzue, eta gaur zortzi Elgoibarren.**

Bai, poliki-poliki ari gara kontzertuak ematen. Maiatzean Eibarren ere jotzeko aukera irten zaigu, eta gustatuko litzazuke Bizkai aldean ere kontzertuak ematen hastea. Horretarako ezagutu egin behar gaituzte, eta lanean ari gara. Bideoak ere grabatu dugu, eta pentsatzen dut horrek ere lagunduko digula. Mutrikun grabatu genuen, eta oso esperientzia polita izan zen. Kontzertuak ematea da gehien gustatzen zaiguna, eta gu ilusioz gabiltza. Mutrikun eman genuen lehenengo abenduan, eta gero, Anoetan jo genuen. Aurreko hilean Getarian izan ginen eta bihar Mendaroko Gaztetxean joko dugu. Sotoko emanaldian gustatuko litzaidake hura bete beterik ikustea. Sotoa oso leku aproposa da kontzertuerako, xarma berezia dauka.

**Gizurrak hanka motzak daukaz:** Gezurrarekin urrutira iritsi ezin daitekeela adierazteko. Gezurtia bizkor harrapatzen dela adierazteko.

## Elgoibar eta Mendaroko dantzariak maila ona eman zuten aurreku txapelketan



Domekan jokatu zen Elgoibarko Aurreku Txapelketa Herriko Antzokian. Lasarte, Amasa-Villabona, Lezo, Zizurkil, Mendaro, Legazpi, Pasai Donibane, Areso, Lizartza, Andoain eta Elgoibarko dantzariak hartu zuten parte eta tartean Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bost dantzariak: Malen Galarraga, Nerea Galindo, Duna Santos, Irene Toledano eta Elaia Etxaniz. Maila ona erakutsi zuten. Aurreku txapelketako hurrengo jardunaldia, Oiartzunen izango da martxoaren 27an, eta Elgoibarko ordezkariak Nerea Galindo, Duna Santos, Uxue Cabrera eta Unax Ansola izango dira.

## Euskarazko bederatzi film labur izango dira ikusgai martxoaren 23an Herriko Antzokian

Laburbira egitasmoak bederatzi film laburren bilduma ipini du ikusgai Euskal Herriko 30 herritan, eta hilaren 23an iritsiko da Elgoibarrera, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak eta Ongarri Zine Klubak antolatuta. Aurtengo bilduma askotarikoa da, eduki zein estilo ezberdinez osatua, gaur egungo euskal zinemagintzaren ispilu: Emango dituzten film laburrak Iban del Camporen *Serendipia*; Alba Romera eta Rony Velozen *Itsasoaren mugimendua*; Paula Iglesiasen *Lanbroa*; Jose Luis Lopezen *Falta Zaizuna*; Nahia Aizpurua Garroren *Hurrengo geltokia*; Amaia San Sebastianen *Rewind*; Aitor Alberdiren *Turnoka*; Josu Martinezen *Subandilla*; eta Sergio Martinez Villarren *Itsaso* izango dira. 21:00etan Herriko Antzokian, doan.

## Erraldoi eta buruhandiak kalera ateratzeko lagunak behar dira

Elgoibarko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak 21 lagun behar izaten ditu erraldoiak eta buruhandiak kalejiran atera ahal izateko, eta jende beharrean dira. Zehaztu dutenez, beharrezkoa da 16 urtetik gorakoa izatea. Izena eman nahi duen orok mezu bat bidali behar du [elgoibarkoerraldoiak@gmail.com](mailto:elgoibarkoerraldoiak@gmail.com) helbide elektronikora. Elgoibarko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa hamabi buruhandiz (Basajaun, Basandere, Tartalo, Mari, Donald ahatea, Ipotx zorionsua, Pinotxo, Mickey Mouse, amama, aitita, sorgina eta pirata) eta lau erraldoiez (Nafarroako errege-erreginak: Zuria I. Nafarroakoa eta Martin gaztea; Altzola dorretzeko jaun-andreak: Asensio Altzola eta Katalina Ibarra) dago osatua.



## Udal Musika Bandaren kontzertua, domekan

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, 12:30ean, Herriko Antzokian. Gorka Mujikaren zuzendaritzapean honako piezak joko dituzte: *De Romaxe a Frangueira* (R. Groba); *Variaciones de un tiempo pasado* (E. Moreno); *Mont Saint Michel* (David Rivas); *Kontzejupe* (Juan Cordero); eta *The star of dreams* (Robert W. Smith). Bi piezatan Garikoitz Mendizabal txistularia arituko da bakarlari lanetan.

## Salgai daude Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako sarrerak

Apirilaren 29an *Kuikui* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok Elgoibarren, eta dagoeneko salgai daude sarrerak. Bi saio izango dira Herriko Antzokian, 17:00etan bata, eta 19:00etan bestea. Aurtun Euskararen gaiari eutsiko diote antzezlanean; amalurra txoriek bezala ikusiz, plastikoz betetako itsasoa erakutsiz, eta baita migrante baten istorioa kontatuz ere. Hori guztia kolorez eta adorez jantzita. Ikuskizunerako sarrerak [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgurean edo larunbatetan 18:15etik 20:45era Herriko Antzokiko lehiatilari eskuratu daitezke.



## Motxaila Eguna ospatuko dute bihar Mendaron

Bi urteko etenaren ostean Motxailaren Egunean jai giroak hartuko du Mendaro. Zaturako jarduerak antolatu ditu Motxaila Elkarteak, baina gaur, barikua, *Zerua motxailen aterpe* bertso saioa egingo dute San Agustinen, 22:00etan. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Eli Pagola arituko dira kantuan eta Maialen Olazabal gai-jartzaile.

Motxaila Eguna baina, bihar izango da. 9:00etan gaztetxean elkartu eta Aitzbeltzeko kobara joanda, 11:00etan kobaren historia kontatuko du Evaristo Rodriguezek. Musika eta hamaiketako ere ez dira faltako koban.

Mendaroko motxailek berentzako bazkari aproposa egingo dute gero, 15:00etan gaztetxean. Salmorejoa eta motxaila potajea nagusiek, makarroiak umeek eta postrea ondoren. Postreaz gain, beste sorpresarik ez da faltako bazkalostean.

Arratsaldea ere ez dute atsedenean pasako mendarorrek. bazkaldu eta sorpresaren ondoren Ostikda elektrotxarangak



soinuz jantziko baitu Motxaila Eguna. Musikak hartuko du gaua ere, izan ere, Muzak taldearen kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean. Eguna amaitzeko Altxa porru erromeria taldeak dantzarako kantuk eskainiko ditu.

## Grafitia margotu dute Euskararen Eguneko esaldi lehiaketako irabazleek



Abenduaren 3ko Euskararen Egunerako Elgoibarko Izarrak Udalarekin lankidetzan esaldi lehiaketa antolatu zuen, eta Elgoibar Ikastolako DBH2 A taldekoek irabazi zuten *Euskara zabalduaz lau haizeetara* esaldiarekin. Txomin Artolaren *Aberriaren mugak* abesititik hartutako esaldia da, eta orain, Basarteko horma batean idatzi dute grafiti eran. Fill In Culture taldeko grafitigile profesionalen laguntzarekin auzolanean jardun zuten grafitigintzako teknikak ezagutu eta praktikan jarri. Txandaka pasa ziren hormatik ikasleak eta gustura gelditu ziren azken emaitzarekin.

## Parrokiako abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar

Pandemia dela-eta bi urteko etenaren ostean, parrokiako abesbatzak ekin dio jardunari. Hainbat kidek eta zuzendariak abesbatza utzi zuten, baina jadanik badaude kide eta zuzendari (Aitor Garitano) berriak. "Gazte bergararrak bizitasuna ekarri du eta ilusioz hasi dugu etapa berria", diote abesbatzatik. Aurkezpen kontzertua, bihar izango da, San Bartolome Parrokian, 19:00etako mezaren bukaeran. Kontzerturako gonbidapenez gain, herritarrek entsegetara animatu nahi dituzte abesbatzako kideek. Eguenetan izaten dira, 19:30ean.

## Mendaroko gazteak herriko euskararen erabileraz arituko dira

Gaur, martxoak 18, Mendaro udalerrri euskalduna al da? galderari erantzuna bilatzeko lanketa egingo dute Gaztelekuan, hitzaldi baten bidez, 18:30ean. Gazteek herriko euskararen egoera nola ikusten duten jorratuko dute, baita beraien ohiturak ere. Hitzaldia baliatuko dute Salto gazte topaketan aurkezpena egiteko ere. Ekainaren 27an hasi eta uztailearen 3an bukatuko den udalekua da hori. Tolosatik eta Etxarri Aranaztik abiatu eta Leitza elkartuko dira bi taldeak eta Mendaroko gazteek udaleku ibiltarian parte hartzeko aukera izango dute.

## Igoera faseko lehen eta bigarren sailkatuak ariko dira elkarren aurka, Olaizagan



Igoera faseko liderrak, Indupime Basaurik, bigarren sailkatua den Alcotari bisita egingo dio bihar. Olaizaga kiroldegian jokatuko duten neurketa 19:30ean hasiko da. Sei eskubaloi talde ari dira lehiatzen igoera fasean, eta zazpi jardunaldi jokatuta ostean, Basauriko taldea dago sailkapeneko lehen postuan, 11 punturekin. Bizkaitarrek bost partida irabazi, bat galdu eta beste bat berdindu dituzte. Alcotari, berriz, zortzi puntu batu ditu orain arte; lau partida irabazi eta hiru galduta. Elgoibartarrek jarraian lortu dituzte azken garaipenak: lehena, etxean, Legazpiren aurka (30-20); eta, azkeneko joan den zapatuan Zarautzen, Txikipolit Zarautz taldeari 25 eta 28 irabazita. Igoera lortzeko partida erabakigarria izan daitekeela-eta, Sanlok senior gizonezkoen taldea animatzera gonbidatu ditu zaleak.

## Igeriketa Taldeko benjaminak Azkoitian lehiatu dira



Joan den asteburuan Azkoitiko igerilekuan lehiatu ziren Elgoibar Igeriketa Taldeko benjamin mailako igerilariak. 50 eta 100 metro bular eta krol estiloetako probetan igeri egin zuten, besteak beste, Oñati, Bergara, Azkoiti eta Azpetiko igeriketa taldeetako neska-mutulekin batera. "Gure igerilariak maila ona erakutsi zuten, eta taldea indartuta eta pozik bueltatu zen Azkoititik. Guztiak merezi dituzte txaloak", adierazi dute taldeko arduradunek. Hurrengo txapelketa Eibarren jokatuko dute, martxoaren 26an, eta joan den asteburukoa bezain arrakastatsua izango delakoan daude igeriketa taldekoak.



## Paula Calvo Espainiako neguko igeriketa txapelketan lehiatu da Cadizen

Espainiako Neguko XLI. Igeriketa Txapelketa jokatu zuten martxoaren 10etik 13ra bitartean Cadizen, eta estatuko infantil mailako igerilari onenak aritu dira lehiatzen, Paula Calvo (Elgoibar, 2009) horien artean. Eibar Igerixan taldeko ordezkariak lau probatan hartu zuten parte: 100m. libre, 100m. bizkar, 200m. bizkar eta 200m. estiloetan. Proba horietan 2007 eta 2009 urteen artean jaiotako igerilariak izan zituen aurkari, alegia, gaztetxoenetarikoak izan zen bera, 2009an jaiotakoa baita. Hala ere, denborarik onenetarikoak lortu zituen bere adinekoen artean.

## Giharrak lantzeko bi aparatatu berri, Mintxetan


Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak bi aparatatu berri jarri ditu Mintxetako Muskulazio Aretoan. Horieta batean, gorputzenborraren goiko aldean lantzen da, flexioen bidez: bizkar-muskuluak, bularraldekoak, trizepak, deltoideak eta abdominalak; beste aparatuan, berriz, zangoak, kuadrizepsak, abdominalak, bularraldekoak eta besoak landu daitezke. Mintxetako eta Olaizaga Kiroldegiko muskulazio-aretoen erabilera Kirol Patronatuaren abonuan barneratuta dago. Abonatuak ez direnek muskulazio-gelak erabili ditzaketela hilean 46,50 euro ordainduta.





## EH Bilduk dio Mendaroko kirol azpiegituren azterketa eurek eskatuta egingo dela herritarren parte hartzearekin

Mendaroko EH Bilduk argi laga nahi du Kirol Egituren Plan Gidaria herritarren parte hartzearekin egiteko eskaria eurengandik jaio zela. Egitasmo honen nondik norakoez eta izan duen bilakaeraz azalpenak eman dituzte, prentsa ohar bidez. EAJk Azpilgoetako hilerria eta Ospasgain artean kirolgune bat egiteko aukera aipatu zuen bitartean, EH Bilduk herrian kirola egiteko aukeren azterketa bat egiteko eskatu zuela adierazi du Mendaroko EH Bilduk: "Hasieran jendearen parte-hartzerik aurreikusten ez bazen ere, EH Bilduk hala eskatuta parte-hartze prozesua egingo da, azkenean", gogora ekarri dute, Mendaroko Udalak joan den astean jakinarazitako informazioaren harira. Azaldu dutenez, duela hilabete batzuk EAJko Udal Gobernuak "lau haizeetara" zabaldu zuen Azpilgoetako hilerria eta Ospasgaingo futbol zelai zaharraren arteko mendi magalean kirolgune bat egiteko asmoa zuela. "EH Bildutik argi geneukan, eta hala adierazi genuen, dirutza balio duten azpiegiturak eraiki aurretik beharrezkoa dela, beste hainbeste esparrutan bezala, kirolaren eta jarduera fisikoaren praktikak Mendaron duen egoeraren diagnostiko batetik abiatzea". Asmo horretan, EH Bilduren arabera, parte hartu nahi zuten herritar guztiek parte hartu ahal izateko moduko prozesu bat martxan jarri beharko litzateke martxan, "adin eta genero bereizketarik gabe egin ere". "EH Bilduren proposamenetik abiatuta, eta EAJren hasierako asmoa baztertuz, 2021eko urrian enpresa bat kontratatu zen Mendaroko Kirol Azpiegituren Plan Zuzendari bat egiteko. Orain plan horren baitan herritarren parte hartze prozesu bat abiatuko da EH Bilduk azaroko Udalbatzan alkateari eskatu zion moduan", azaldu dute.




### Maiatzaren 15ean jokatuko dute Jose Gurrutxaga Krosa

Pandemiagatik bi urtean egin gabe egon ostean, Elgoibar Ikastolak maiatzaren 15erako antolatu du Jose Gurrutxaga krosa. Ohartarazi dutenez, 16 urtetik gorakoen lasterketan parte hartzeko alde aurretik bakarrik eman ahal izango da izena, [elgoibarikastola.eus](http://elgoibarikastola.eus) webgunean, martxoaren 21era bitartean. Pandemiagatik bi urtean antolatu ezin izan duten krosari buruzko bideoa ere sortu du Elgoibar Ikastolak. Krosaren sorrera eta orain arteko ibilbidea laburbiltzen ditu bideoak, hainbat protagonisten lekukotzekin. Ikastolaren weborrian eta [barren.euseko](http://barren.euseko) komunitatean dago ikusgai.



### Gurrutxaga eta Conde gailendu dira Igeldoko pala txapelketan

Igeldoko Pala Txapelketa jokatu dute azken hilabeteetan Igeldoko Udal Pilotalekuan, eta Asier Gurrutxagak eta Ander Condek osatutako Lagunak pilota eskolako bikotea gailendu da gizonezkoetan. Finalean 25 eta 21 irabazi zieten Landeri eta Koldori. Joan den azaroaren 26an hasi zuten Igeldoko Herri Kontseiluak eta Pilota Elkarrean antolatzen duten III. Neguko Pala Txapelketa, eta 42 bikote aritu dira lehian, horietako zazpi emakumezkoetan.



### Skate Eguna, martxoaren 26an

Egun osorako egitaraua prestatu du Elgoibarko Udalak martxoaren 26rako antolatu duten Skate Eguna ospatzeko: skate ikastaroak, ikuskizunak, musika... Ekitaldiak 9 eta 15 urte bitarteko gazteentzako direla zehaztu dute. Ekintzetan parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea. Horretarako, interesa duen orok lau modu izango ditu: 690 000 547 telefonora deituz, ludotekan, Gaztelekuan edo ekitaldiko karteletako QR kodea eskaneatuz.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Edozein lan egiteko prest nago, aste bar-ruan. Eskola partikularrak eman, zerbitzari lanak... Euskalduna naiz.

☎ 684 221 398

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 631 229 408

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat, eta paperak legez.

☎ 654 994 405

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago, LH, DBH zein Batxilergo mailetan. ☎ 655 392 635

Adinekoak edo 2 urtetik gorako umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest nago. Etxeko langile modura zein orduka.

☎ 632 382 740/ 632 671 842

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauetz, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua daukat.

☎ 602 490 595

Edozein lan egiteko prest nago, goizez edo asteburuetan.

☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 643 411 292

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest nago.

☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Zaintza titulu daukat eta esperientzia ere bai. Euskalduna naiz.

☎ 626 490 986

**Eskaintza**

Estetika zentro baterako estetizista behar da. Esperientzia kontuan hartuko da, eta euskaraz jakitea, ezinbestekoa da. Bidali curriculumak [olamarsan@gmail.com](mailto:olamarsan@gmail.com) helbidera.

Zerbitzaria behar da, asteburuetan lan egiteko. ☎ 659 539 861

**AUTOAK.....**

Volkswagen Golf autoa salgai. Egoera onean. ☎ 679 830 438

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Gure komunitateko jabe bat ez dago ados obra batzuk egiteko, etxejabeen batzar batean hartutako erabakiarekin. Azken batzarrean komunitate-buruari eskatu zion obra hori egiteko onartu eta sinatu den aurrekontua. Baita bere jabetzari dago-kion eta ordaintzeko dagoen kopurua azaltzen duen akta ere. Jakin nahi nuke presidentek derrigorrez eman behar al dion dokumentazio hori.**

Legearen azken berrikuntzak saiatzeko dira komunitateetan zorrak saihesten. Arauen arabera, bilera hastean, komunitate kuotak ordaindu gabe dituztenek, deliberoetan parte hartu ahal izango dute, baina ezingo dute batzarrean hartzen diren erabakietan botorik eman. Arau honen neurria boto eskubidea mugatzea baino ez da, ez ordea beste eskubide batzuk galaraztea, esaterako, komunitateko informazioa jasotzeari dagokiona. Beraz, ez presidentek ezta komunitateak ere, ezin dio etxejabe bati debekatu batzarrean hartu eta aktan jaso tako akordioen berri jasotzea.

**Aholkua: Lege erregulazio honekin, erabakiak hartzean baztertu egingo da komunitatearen baitan oinarritzko obligazioak (komunitate kuotak ordaintzea) betetzen ez dituen jabe hori.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
 San Bartolome, 2





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Oier**, martxoaren 20an 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna, eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **June**, zure zazpigarren urtebetetzean. Guraso eta lagunenen partez, muxuak!




Gure udaberriko larrosak dagoneko 10 urte zoragarri! Zorionak, **June**, etxekoan partetik.



Zorionak, **Aner!** Ondo-ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean! Muxu potolo bat denon partez. Maite zaitugu.



Gure loretxoak 4 urte beteko dituiada. Zorionak, **Ane!** Besarkada bero bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Maia**, etxekoan eta bereziki, Gorkaren partez zure 16. urtebetetzean. Muxu handi bat.



Zorionak, **Asier**, 9 urte bete dituzulako. Jarraitu horren jatorra izaten. Muxu potolo bat denon partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## BARRENI buruzko inkesta

Inkesta honen bidez, BARREN KOMUNIKABIDEARI buruz duzun iritzia jakin nahi dugu. Minutu gutxi batzuk baino ez dituzu beharko. Mila esker zure denboragatik!

Inkesta anonimoa da, baina zure profila hobeto ezagutzeko datu gutxi batzuk eskatuko dizkizugu.

Egon lasai: inkesta honi buruzko zerbait publikatzen badugu, erantzun multzoak izango dira, ez banan-banakoak.

Sartu [barren.eus](http://barren.eus)-en eta egin klik bannerrean

Zer iruditzen zaizu BARREN?



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### DW60M6050FS SAMSUNG ONTZI-GARBIGAILUA

599 €



- 14 zerbitzu
- 7 programa
- Mahai-tresnak garbitzeko 3. erretilua
- Hasiera gerotua
- Garbiketa sakona funtzioa
- Hatz arrastoen aurkako Inox

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 18 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

**18:15** Garizumako elizkizuna: Gurutz Bidea. San Bartolome parrokian.

**18:30** Gazteentzako tailerra: 'Mendaro udalerrri euskalduna da?'. Mendaroko Udalak eta UEMAK antolatuta, Mendaroko euskararen egoerari buruzko saioa. Mendaroko Gaztelekuan.

**19:00** Hitzaldia: 'Eliza, Sinodo giroan'. Hizlaria: Koldo Katxo. San Bartolome parrokian.

## 19 ZAPATUA

**11:00** Mendaroko Txirrindulari Lasterketa. MTE-k antolatuta, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.

**12:00** San Jose Eguneko meza, San Bartolome parrokian.

**12:00** Hitzaldia: 'Covid19-a eta sen ona'. Jon Ander Etxebarria eta Joseba Argintxonak eskainiko dute. Maalako parkean.

**20:00** Parrokiako abesbatzaren kontzertua. San Bartolome parrokian.

## 20 DOMEKA

**10:00** Dantza tailerra: 'Nire barneko brujula. Nire barneko lau norabideak'. Lilan.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 23 EGUAZTENA

**19:00** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

## 24 EGUENA

**19:00** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

## 25 BARIKUA

**20:00** Elkarretaratzea: 'Preso gaixoak etxera'. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

**22:30** Kontzertua: Muzak. Kultur Etxeko sotoan.

## MOTXAILA EGUNA, Mendaron

### MARTXOAK 18, BARIKUA

**22:00** Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Eli Pagola. Gai jartzailea: Maialen Olazabal. San Agustin kulturean.

### MARTXOAK 19, ZAPATUA

**9:00** Kobazulora irteera, Gaztetxetik.

**11:00** Hitzaldia: Evaristo Rodriguezek Aitzbeltzeko kobaren historia kontatuko du. Musika eta hamaietakoa ere egingo dituzte bertan.

**15:00** Bazkaria, Mendaroko Gaztetxean.

**Segidan**, sorpresa.

**18:00** Ostikada Elektrotxaranga.

**22:30** Kontzertua, Gaztetxean, Muzak eta Altxa Porru taldeekin.

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

### 'HAUTSI DA ANPHORA' MARTXOAK 20, 20:00ETAN, EIBARKO COLISEOAN

Euskal musikaren une garrantzitsuenetako baten azterketa garaikidea. 1980an Ruper Ordorikak bere lehen diskoa argitaratu zuen, *Hautsi da Anphora*. Bernardo Atxagaren testuetatik abiatuta, iraganarekin hautsi eta euskara gaur egungo bidean jartzen zuen. Anfora hautsi zen! Lau hamarkada geroago, balioa emateko eta bere garrantzia aitortzeko ueña iritsi da, kanta guztiak berreskuratuz eta gure garaira ekarriz. Ruper Ordorika, Arkaitz Miner, Fernando Lutxo Neira, Hasier Oleaga, Bixente Martinez, Josu Zabala izango dira musikariak.



**Merkealdia!**

**Sukalde edo jangelarako mahaia, aulkiak eta tabureteak.**

**Aukera guztiak. Zatoz gure katalogoa ikustera!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
18 BARIKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKUA
Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauz: 22:00-09:00**  
Esther Mendinueta Berastegui.  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

Zinea (Herriko Antzokian)



**'Licorice pizza'**

19 zapatua: 19:00 / 22:15  
20 domeka: 19:00  
21 astelehena: 21:00



**'Tundama y el templo del sol'**

20 domeka: 16:30



**'Laburbira'**

(Ongarri zinekluba)  
23 eguaztena: 21:00

# Osasun gida

**aldaz**  
horts klinikak

RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Torbio Eteebania, 22  
Eibar  
677 551 850

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 963 625  
www.fisio-mas.com

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**Jeku eder**  
horts klinika

RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**federópticos**

**ikus**

RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734



## Irati Agirreazaldegia

**A**rgazkian bakarrik lore bat, azafraia. Sukaldean luxuzko osagaia, zaporea ezezik kolorez janzten duena hainbat jateko, eraginez probatzeko nahia.

Irudikoa, ordea, ez da paellari azafraia botaz gero hartzen duen kolorea. Ikusten dugu lorea, agerian gordea, baina bakarrean erakusten du adorea. Landareari begira balego pintorea, egingo lioke faborea, emakumeak ezkutatatu arren edozein txokotan bistaratu nahi lukeen margoa baita morea. Martxoaren 8an kaleetan erakustek emakumeoi ezezik herriari eman zion balorea, baina egun batean kolore hutsean gelditzea baino egunero margotzea ez al da hobe?

Morea edo lila eta itxurari erreparatuta gora begirako ezkila. Eta kanpaia beheraka dagoenean hasten bada ere iskanbila, emakumeok, gure eskubideak aldarrikatu nahi izanez gero, ezin dugu utzi petaloek irudikatzen duten kanpaia- ren barruko mingaina isila, gure barne pentsamendua ez baitago hila. Nahiz eta askok pentsa lorea zuztarretatik ateratzeko indartsuena dela mutila, sustriak indartsu dituen ere bada neskatila. Beraz, bakoitzak behar duenean altxatzen du ukabila eta joaten da lorerik edo kolorerik aproposenaren bila.

Nahitaezkoa begiekin begiratzea koloreari eta orekatzea ilun eta argi. Baina "gure" sistemak egoki begiratzen al dio eguneroko bizimoduari? Justizia itsua denean ez al zaio bista zuzendu behar emakumeon eskubideak gutxien dituenari. Begiek aurrerantz begiratzen dutenean ikus dezakete nola segi aurrekoari eta aurrerantz jotzeko denon begi moreetan dago soa aldatzea eta egunero azafraia- ren kolore lila ematea martxoaren 8ari.



Iñigo Lamelas

*“Nahiz eta askok pentsa lorea zuztarretatik ateratzeko indartsuena dela mutila, sustriak indartsu dituen ere bada neskatila”*



# ROSA M<sup>a</sup> PINTADO

Etaldeen administratzailea  
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184  
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza  
kolaboratzailea



## ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



### Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

### Gardentasuna



### Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

**25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA**

administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioen  
Lurralde Kontseilua

DERRIGORREKO  
KOLEGIATZEA

**BAI!**  
NILA ESKER





**2022-23 ikasterterako Batxilergorako Onarpena.  
Martxoaren 28tik apirilaren 8ra (on-line zein ikastetxean)**

## BATXILERGOA



**GIZARTE ZIENTZIAK  
HUMANITATEAK**

**Giza eta  
Gizarte  
zientziak**



**OSASUN ZIENTZIAK  
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA**

**Zientziak**



**ARTISTIKO  
MUSIKALA**

**Artea**



**BATXILERGO  
OROKORRA**

**Orokorra**



**ATE IREKIAK:  
MARTXOAREN 24AN, 18:00ETAN**

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net

